

15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa

15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, aurrez ikusten duenerako, jakinarazten zaizu datu pertsonalak **CENTRO DE DIAGNÓSTICO DURANGO, S. L.** enpresaren fitxategietan sartuko (edo eguneratuko) direla. Aipatu enpresak helbidea Durangoko (48200) (Bizkaia) Intxaurren kaleko 19. zenbakian du.

Datuak tratatzearen helburua eskatutako proba medikoaren analisia eta diagnostikoa egitea izango da.

Dokumentu honetan eskatzen diren datu pertsonalak derrigorrezkoak dira; beraz, betetzen ez badira, ezingo dira arestian deskribatutako fitxategietan sartu eta, ondorioz, ezingo da aurreko paragrafoan deskribatutako helburua bete.

Era berean, klinika kolaboratzaileei (Centro de Scanner de Vizcaya, S. A., Clínica Vicente San Sebastián TC 64, S. L., Centro de Diagnóstico Virgen Blanca, S. A., Centro de Diagnóstico San Juan de Dios, S. A., Radiología Clínica Vizcaya, S. L. eta Resonancia Magnética Bilbao, S. A.) egin behar diren proba medikoen eta jada egin direnen datuak jakinarazteko baimena ematen duzu, diagnostiko zuzenagoa egin ahal izateko. Jakinarazpena baimentzen ez baduzu, zentroko informazio-mahaian adieraz daiteke, beste galdeketa-eredu bat eskura diezazuten.

Datuak lortu, zuzendu, deuseztatu eta kontra egiteko eskubidea duzu, Legeak aurrez ikusitako baldintzetan. Eskubide hori idatziz erabili ahal izango da. Idazkia horien arduradunari zuzendu beharko zaio, arestian aipatutako helbidean.

☐ **BAI** baimentzen dut

☐ **EZ** dut baimentzen

BERRI EMAN ZAION PAZIENTEAREN SINADURA


Jn./And.:

NAN zk.:

**EMN-RI BURUZ BERRI EMAN OSTEAN, BAIMENA
CENTRO DE DIAGNÓSTICO DURANGO, S. L.**

PAZIENTEA:

DATA:



Erresonantzia magnetikoa azterketa teknika bat da, X izpiak edo beste elementu erradioaktibo batzuk erabiltzen ez dituen eta ondorio kaltegarriak ez duena. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

Azterketa arrakastaz egiteko garrantzitsuena pazientearen geldirik egotea da, proba osoan MUGITU GABE.


- Zarata erritmikoa entzungo duzu, etengabeko kolpeen moduan, baina ARRUNTA da teknika honetan.
Zarata horren maiztasuna eta intentsitatea aldatzeko dira, eta oztopo bakarra izango da zuretzat.
- Gelak itxita egon behar du. Baina BEGIZ kontrolatuko zaitugu, eta osasun langileekin HITZ EGIN ahalko duzu, azterketa egiten den bitartean.

ERRESONANTZIA MAGNETIKOAK EREMU MAGNETIKO BATEKIN LAN EGITEN DU. HORREGATIK:

- **EZIN DIRA SARTU TAUPADA-MARKAGAILUA** duten pertsonak.
- Metalezko objektu guztiak KENDU BEHARKO DITUZU. Zalentzarik baduzu, galdetu langileei:

Belarritakoak	Eraztunak	Lepokoak	Kreditu txartelak
Erlojuak	Eraztunak	Giltzak	Etab.
- Garezurraren azterketetan begietatik makillajea kendu beharko da.
- Langileei jakinarazi beharko diezu gorputzean eta bereziki begietan metalezko txirbilik izateko aukera daukazun, baita gorputzaren barnean edozein motatako METALEZKO ELEMENTUrik (metraila, klip kirurgikoak, protesiak eta abar) duzun ere.

Sexua: _____ Adina: _____ Pisua: _____



EM AZTERKETA EGIN AURREKO GALDERA-SORTA

Hautatu dagokiona “X” erabiliz

- 1) Aldez aurretik egin al duzu ERRESONANTZIA MAGNETIKOAREN azterketarik?
- BAI ☐ EZ ☐
- 2) Ebakuntza kirurgikorik izan al duzu lehen?
- BAI ☐ EZ ☐
- 3) Metalezko inplanterik, gorputz arrotzik edo metalezko objekturik ba al duzu gorputzaren barruan?
- BAI ☐ EZ ☐

Erantzuna **BAIEZKOA** izanez gero, zehaztu zer motatakoa “X” erabiliz:

- | | | |
|---|--|---|
| ☐ TAUPADA-MARKAGAILUA | ☐ INTSULINA-PONPA | ☐ METALEZKO JOSTURAK |
| ☐ UBG | ☐ METALEZKO KLIPAK | ☐ BENTRIKULU-SHUNTA |
| ☐ KLIP ANEURISMATIKOAK | ☐ KABA-IRAGAZKIAK (edo ODOL-HODIETAKOAK) | |
| ☐ BEGITAKO INPLANTEAK | ☐ BIHOTZEKO BALBULA | ☐ BELARRITAKO INPLANTEAK |
| ☐ SWANGANZ KATETERRA | ☐ BEGI BARRUKO GORPUTZ ARROTZA | ☐ SONOTONEAK |
| ☐ METRAILA | ☐ ARTIKULAZIO-PROTESIAK (aldakan, etab.) | |
| ☐ ILTZEAK | ☐ ORRATZAK | ☐ TATUAJEAK – PIERCINGA |
| ☐ INFUSIO-PONPAK | ☐ HORTZ-PROTESIAK (ordezko hortzak, zubiak, inplanteak) | |
| ☐ BESTELAKOAK: _____ | | |

4) Ogibidea: _____

Metalekin lan egin al duzu edo oraindik ari al zara?

BAI ☐ EZ ☐

5) Emakumezkoa izanez gero, haurdun al zaude edo egon zintezke?

BAI ☐ EZ ☐

6) Giltzurrunetako gutxiegitasuna al duzu?

BAI ☐ EZ ☐

7) Batzuetan KONTRASTE injeztatu behar da zain barnetik diagnostikoa errazteko. Kontraste mota hori ez da beste erradiologia-proba batzuetan erabiltzen dena bezalakoa, eta segurtasun handiagoa dauka. Hala ere, sendagai guztiak bezala, erreakzio alergikoa sortzeko arriskua dakar. Azterketa egiten den bitartean erradiologoak uste du egokia dela kontraste hori sartzea, horretarako baimena emango duzu?

BAI ☐ EZ ☐

BERRI EMAN ZAION PAZIENTEAREN SINADURA

Jn./And.: NAN zk.: